# Getxoko herripapera

ehbildu GETXO

2023ko martxoa

@GetxokoEHBildu | EH Bildu Getxo | @ehbildugetxo | 665 732 491 | getxo@ehbildu | www.getxo.ehbildu.eus

# Getxoko HAPO berria:
## inposaketa, porlana, konfusioa eta gestio txarra

**Bestelako herri eredua posible da, eraikuntza masibo eta espekulaziotik kanpo. Hori dela eta, EH Bilduk hainbat alegazio aurkeztu dizkio HAPOri. Hona hemen laburpen bat:**




1. Tosu, Muru, Martiturri eta Peña Santa Marina sektoreak HAPOtik kentzea, hau da, sektore urbanizagarriak ez-urbanizagarri bihurtzea.
2. Zubileta sektorea ere zerotik hastea, auzokideekin batera urrats guztiak adostuz.
3. HAPOk jasotzen ez dituen 200 baserri eta eraikin baino gehiago babestea. Gure herriko ondarea babestu behar dugu.
4. Getxoko eraztun berdea sortzea; Mimenaga ekologikoki berreskuratuz eta Bolue eta Azkorrirekin lotuz. Andra Marirentzat plan berezia.
5. Trinitarios sektorea (lur-azpiko aparkalekua) eta Algortako batzokiko pelotazoa geldiaraztea.
6. Etxe hutsen gainean neurriak hartzea; alokairu sozialeko etxebizitzei lehentasun osoa ematea; herriguneetan eraikiko diren etxebizitzak babes ofizialekoak izatea; eta Guardia Zibilaren kuarteleko lurretan etxebizitza babestuak sortzea.
7. Algortako Portu Zaharrean pisu eta etxe turistikoak debekatzea. Beheko berdegunea ere bere horretan mantentzea.
8. Mugikortasun jasangarria bultzatzea: bidegorri-sarea handitzea (Maidagan, Sarrikobaso, Algortako Etorbidea...), Getxobusa eta auzo-taxi zerbitzuak martxan jartzea.
9. Metroaren ibilbidea lurperatzeko lehenengo urratsak ematea, oinezkoentzako espazio berriak sortuz, berdeguneak handituz.




**La plataforma contra el PGOU de Getxo ha organizado una manifestación el próximo 25 de marzo, a las 17:30 desde Telletxe. Desde EH Bildu nos sumamos a la marcha, ya que es indispensable hacer frente al plan tanto en las instituciones como en la calle.**

Después de años de retraso, PNV y PSE han aprobado inicialmente el PGOU de Getxo con recetas del pasado, es decir, fomentando la especulación y la construcción masiva. Vecinos y vecinas se han enterado por la prensa que el Ayuntamiento les quiere derribar el caserío o su vivienda. Nula empatía y sensibilidad por parte de un Equipo de Gobierno que parece tener intereses especulativos por encima de los intereses del pueblo. Desde EH Bildu Getxo creemos que otro modelo de pueblo es posible. Por eso hemos presentado varias alegaciones con propuestas para proteger los escasos espacios verdes que le quedan a Getxo; el patrimonio histórico, para hacer frente a la especulación y promover el alquiler social, y el comercio local. No queremos un Getxo de postal, lleno de cemento, proyectos faraónicos y siguiendo el modelo de pueblo dormitorio.

# Getxoko emakumeen* etxea, emakumeen* Getxoko etxea

Uxune Iriondo Urbistazu Militante feminista

**Hamarkada bat inguru daroagu Getxon emakumeentzako gune bat aldarrikatzen, non feminismoa lehen lerrora zelan ekarri jorratu.**

Gogoan dut zelan, besteak beste, Emakumeen Etxeari buruzko parte-hartze prozesu bat egitearen truke aurrekontu batzuetan ezetz esan beharrean abstentzioa eman zuela Getxoko EH Bilduk behin. Parte hartu genuen, eta horraino heldu zen dena. Ziria sartu ziguten. Ez gara, ordea, iraganeko korapilo eta zauri horietan trabatuko, ahuldu eta goibeltzera eroango gintuzketelako.

Gogoeta egitea hobetsi dugu, iraganetik ikastea, etsi barik eustea, alegia. Ilusioa eta indarra elikatzen jarraitu dugu bidelagunekin, kalean, zein erakundeetan, beste herri batzuetan egiten dutenari begiratuz, bidea norekin egin dezakegun aztertuz,



eta aliantzetan zentratuz, bereizten gaituenean zein etsaitzat gaituztenengan baino.

Ordutik hona, Udalaren Berdintasun-kontseiluan Getxoko EH Bilduk galde-eskarietan emakumeen etxearen gaia atera du beti. Nik uste dut etengabeko eskaria funtsezkoa izan dela. Azkenean emakumeentzako gune izateko, jabekuntza-eskola, berdintasun-zerbitzua eta elkarteentzako espazioa izango dugu. Iaztik ari gara emakume asko norbanako zein elkarte modura gogoeta eta eraikuntza-mahaietan parte hartzen, agindutakoa bete dezaten.

Hartara, Udalarena den eta hutsik zegoen Benturillenako beheko solairua, 400 m$^2$ inguru, izango dugu emakumeen etxea. Getxoko emakumeen etxea diote, guk Emakumeen Getxoko etxea. Zeren, azken batean, zer da Getxokoa izatea? Hemen bizitzea? Hemen lan egitea? Lagunak/familia hemen izatea? Aisialdirako, gozamenerako, ikasteko... Getxo hautatzea?

Denak eroso sentitzeko izenaren bila ari gara.

Espazioa egokitu eta txukuntzeko lanak martxoan hasiko direla esan digute. Ez ginen amore emateko sortu. Hitzematen dizuegu hor egongo garela espazio hori lortu arte. Ondoren ere lekua habitatu, geure sentitu eta, jatorritik txiki geratuko dela pentsatu arren, espazio gehiago, handiagoak eskuratu eta bestelako herri bat egitea da gure asmoa. Ez dadila haria eten.

# Propuestas para mejorar los barrios: ludoteca, soterramiento del metro...

**En los últimos meses EH Bildu ha presentado varias propuestas de mejora en los barrios de Getxo: mejora de la movilidad, centro de deporte Getxo Abentura en Errotatxu...**

El urbanismo en Getxo no se puede dedicar en exclusiva a cementar los espacios verdes. Por ello, ante la pasividad del Equipo de Gobierno, desde EH Bildu hemos presentado propuestas como dar los primeros pasos para el soterramiento del trazado del metro (creando un boulevard verde), ofrecer de una vez el servicio de ludoteca en Algorta (si no es en San Martín en otro lugar), impulsar en el edificio municipal de Errotatxu el centro Getxo Abentura (con rocódromo, pista de skate...).











# «Markak hausten jarraituko dugu»

## Mikel Bildosola Agirregomezkorta

**Getxoko EH Bilduren alkategaia**

**Mikel Bildosola** será el candidato a la alcaldía de Getxo por EH Bildu. Algortarra de 39 años, Bildosola es licenciado en Economía y actualmente es el portavoz de EH Bildu en el Ayuntamiento de Getxo. Su mayor pasión es el mundo de la natación, donde ha trabajado como profesor y entrenador, y ha sido campeón del mundo en varias categorías.

**Mikel Bildosola izango da maiatzeko udal hauteskundeetan EH Bilduk aurkeztuko duen alkategaia Getxon. 39 urteko algortarra Ekonomian lizentziaduna da, igeriketa munduan eskarmentu handikoa eta zinegotzia legegintzaldi honetan.**

**Hau laugarren urtea duzu EH Bildu Getxon. Zeintzuk zailtasun eta erraztasun izan dituzu denbora honetan?** Udaletxean lau urte daramatzat lanean, lehenik idazkari eta ondoren bozeramaile. Urte hauetan barnetik ikusi ahal izan dut Udal Gobernu honen politikek herritarrei eragindako kaltea eta proposamen eraikitzaileak egin izan ditugunean atzera bota dizkigute. Zorionez, EH Bilduko komunitatearengandik eta herriko eragileengandik babes handia jaso dut eta horrek lana erraztu dit.

Halaber, iaztik HAPO berria ikertzen eta proposamen eraikitzaileak diseinatzen aritu gara. Oso prozesu gogorra izan da, argi-ilun gehiegi egon dira eta ganorarik gabe egin du Udal Gobernuak prozesu hau guztia. Ez dute parte-hartzea bermatu, egin diren saio irekietan agerian geratu da herritarrek ez dutela begi onez ikusten plana eta, hala ere, aurrera egin dute. Lotsarik gabe. Penagarria da.

**Zer eskaini nahiko zenieke Getxoko herritarrei?** Zintzotasuna eta prestutasuna. Askotan entzun izan dut jendea esaten politikari guztiak berdinak garela eta pena ematen dit, benetan sinesten dudalako gauden lekutik jendartea alda dezakegula.

Nik zein EH Bildu taldeak hori eskaini nahi diegu herritarrei, gauzak beste era batera egin daitezkeelako esperantza, politikagintzarekiko eta herriarekiko konpromiso zintzoa. Horiek dira, nire ustez, edozein aurrerapausu egiteko bidea. Era berean, oso argi daukat ez dugula ezer lortuko ez badugu sarean lan egiten. Interesa daukat besteek esaten dutenaren inguruan eta horrek ezberdinengatik ikasteko aukera ematen dit.

**Zein da zure ametsetako Getxo?** Nik esparru guztietan euskara erabiltzeko aukera ematen digun Getxo nahi dut, kulturalki aberatsa izango dena, kirol arloan aitzindaria, eta eta herri proiektu berriak sortuko dituena. Nire ametsetako Getxon herritarrek etxebizitza, soldata eta pentsio duinak eta zerbitzu publiko sendoak bermatuta izango dituzte. Herri eta auzo biziak nahi ditugu, ez bakarrik lo egitera etortzen diren auzokideez osatutako herria.

Ezkerretik eraikitako Getxo izango da, feminista, antiarrazista eta bizitzeko modu ezberdinak bultzatuko dituena. Kultur aniztasuna biziko duen herria, nortasun propioko auzoekin. Getxo horretan sinesten dut eta horren alde olatu handia sortu eta markak hausten jarraituko dugu.

**Abante!**

### «Creemos que el Ayuntamiento de Getxo se puede gestionar mejor: sin imposiciones, impulsando la participación vecinal, dando prioridad a las necesidades de los barrios y la gente»

Mikel Bildosola se presenta a las elecciones municipales como candidato a alcalde por EH Bildu con la firme convicción de que el Ayuntamiento de Getxo se puede gestionar mejor: de forma más eficiente, sin imposiciones e impulsando otro modelo de pueblo: «El Ayuntamiento cada vez está más alejado de los vecinos y vecinas y de sus necesidades. Es necesario mejorar el funcionamiento de áreas saturadas como Servicios Sociales, Urbanismo o Cultura. No hay rumbo». EH Bildu se presenta como principal alternativa al rodillo PNV y PSE en Getxo: «Contamos con un equipo experimentado, un programa con propuestas concretas en todas las áreas y sobretodo tenemos muchas ganas, ilusión y compromiso por intentar mejorar Getxo, con honestidad y transparencia».

# Edificios de Lope de Vega 12:
## Tristeza, impotencia, sueños e imposición

**El 13 de febrero comenzaron las labores de derribo de los edificios Lope de Vega 12: patrimonio, historia e identidad del pueblo de Romo. Otra vez más, el Equipo de Gobierno (PNV-PSE) ha antepuesto los intereses económicos a las necesidades de las vecinas y vecinos de Romo.**



El edificio de Lope de Vega 12 formaba parte del centro histórico de Romo

Sentimos tristeza e impotencia al ver cómo se destroza el patrimonio de Getxo una vez más. ¿Por qué tanto interés en derribar unos edificios por los que la gente siente arraigo y referencialidad? Ya es imposible recuperar ese edificio, ahora lo convertirán en ese capricho ahora disfrazado de centro intergeneracional. Derribar y construir, ¿por qué no remodelar y aprovechar? En 2015 la Comisión de Patrimonio del Colegio de Arquitectos Vasco Navarro elaboró un informe que definió como centro histórico de Romo el conjunto formado por las Casas Baratas (1924), Iglesia San José (1959) y Edificios Lope de Vega 12 (1935) y se decantó por la rehabilitación de los edificios, alegando que estaban en buen estado y que no sería lógico derribarlos.

El rodillo PNV-PSE ha demostrado una vez más su poco interés por escuchar los deseos de la gente que solo quiere organizarse y tener un espacio donde materializar esos sueños. Ha demostrado una vez más su hipocresía al hablar de políticas para fomentar el envejecimiento activo y el emprendimiento juvenil. Primero, aprovechándose de las restricciones de la pandemia desalojaron a la juventud del gaztetxe y después, con agosticidad y alebosía, expulsaron a la Ibar Nagusien Etxea de la que había sido su casa desde hace más de 35 años.

El emprendimiento juvenil y el envejecimiento activo sólo les interesa mientras puedan controlarla. Les hablan de lugares alternativos que no se asemejan ni de cerca a lo que tenían y a lo que necesitan.

Estas últimas semanas Romo ha asistido a la demolición de ese centro que les hacía sentir en casa, en su barrio y que, encima, era símbolo de muchos sueños y luchas. Y lo han defendido, juntas, desde primera hora de la mañana, haciendo frente a la represión y al miedo. Hemos visto como jóvenes y mayores de Romo eran identificadas, detenidas, aporreadas, mientras el edificio caía ante sus ojos. Hemos visto lágrimas, gritos desesperados, de rabia, tristeza e impotencia.

**¿Por qué derribar un edificio histórico repleto de vida y actividad? ¿Por qué no construir su centro intergeneracional en otro lugar?**

Pero también hemos visto abrazos y manos luchando juntas. Hemos oído los sonidos de un barrio despierto, tejiendo desde los cuidados, organizando y reorganizando de acorde a lo que se iba necesitando. Un pueblo gritando, dándole forma a su rabia. Ante un Equipo de Gobierno que no hace más que destruír y llenar de cemento y megaproyectos, Romo le ha respondido con dignidad.

Como dijo la Asamblea de Romo durante la rueda de prensa celebrada el 2 de marzo en Santa Eugenia, Romo ha demostrado que es capaz de dar respuesta a las imposiciones, que es capaz de mantener la unión ante las injusticias. Ha respondido como un barrio más cohesionado que nunca, tejiendo una red que será la que haga frente a futuras agresiones.

**EUTSI ROMO!**






JARRI GUREKIN HARREMANETAN
TE ESCUCHAMOS
getxo.ehbildu.eus
ehbildu
GETXO